

BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK SARITU DUTE OTXARKOAGAKO HIRI BERRONERATZEKO PROIEKTUARENGATIK

- Etxebizitza eta Lurzoruaren Kudeatzaile Publikoen Espainiako Elkarteak (AVS) praktika hauek aitortzen ditu sari horiekin: eraikuntza berria, etxebizitza sozialen kudeaketa, ingurumenaren kudeaketa, birgaikuntza eta zerbitzu publikoak.

- Sari-banaketako ekitaldia atzo egin zen Sevillan.
- Orain Otxar proiektua esperientzia pilotu bat da, proba gisara egingo dena, ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko beste auzo ahul batzuetan antzeko konponbideak ezartzeko.

(Bilbon, 2021eko urriaren 29an). Etxebizitza eta Lurzoruaren Kudeatzaile Publikoen Espainiako Elkarteak (AVS) saria eman dio Bilboko Udal Etxebizitzak-i, Otxarkoaga auzoaren hiri errehabilitazioko eta birgaikuntzako proiektuarengatik.

Eraikuntza berriko, etxebizitza sozialen kudeaketako, ingurumen-kudeaketaren, birgaikuntzaren eta zerbitzu publikoen arloko praktikarik onenen 2020ko AVS sariak banatzeko ekitaldia Sevillan egin zen **atzo, urriak 28**. Udal Etxebizitzen lana aitortzen duen saria **Eider Bilbao** zuzendariak jaso zuen.

Epaimahaiak **Orain Otxar** proiektuan erabilitako **bi adierazle mota azpimarratu** ditu: batetik, etxebizitzetan, ekipamenduetan eta zerbitzu berrietan egindako jarduketekin lotutakoak, eta, bestetik, adierazle berritzaileagoak, hala nola, generoarekin, pobrezia energetikoaren prebentzioarekin, negozio berriekin, jarduera sozialekin eta prestakuntza eta enpleguaren sustapenarekin zerikusia dutenak.

Orain Otxar proiektua esperientzia pilotu bat da, proba gisara egingo dena, ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko beste auzo ahul batzuetan antzeko konponbideak ezartzeko.

Orain Otxar izeneko ekimen horren helburua da Otxarkoagan jardutea, sozialki jasangarria den eko-auzo bihurtzeko, elkartegintzako sarearen inplikazio zuzenarekin.

Aurrekontua **7 milioi eurokoa da, lau urtetan gauzatzekoa**. Horrelako aurreneko esperientzia da gure urian; eta erakundeen arteko elkarlanaren eta, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta Bilboko Udal Etxebizitzak-ek batera hirigintza arloko biziberritzearen alde egin izanaren emaitza dugu esperientzia.

Proiektuaren jarduketa garrantzitsuenetako bat da bost eraikin birgaitzea da, **efizientzia energetikoaren eta irisgarritasun unibertsalaren irizpideen arabera**. Guztira, gainerako jabeei proposatzen ari zaien esku-hartzeak **auzoko 240 etxebizitzari eragiten die**, 16 ataritan eta hiru kaletan daudenak (Irumineta, Txotena eta Larrakoetxe).

Gainera, **Orain Otxar** proiektuak Europa mailako beste bat ere hartzen du barruan. **Opengela** du izena, eta auzo-bulegoak martxan jartzean datza, auzotarrei laguntzeko eraikinak birgaitzeko prozesu osoan. Esperientzia pilotu gisa, *Otxar Opengela* sortu da, jabeen erkidegoei laguntzeko obrak kontratatzen, laguntza publikoak kudeatzen, finantzaketa eskuratzen, eraginkortasun energetikoa eta irisgarritasuna hobetzen.

VIVIENDAS MUNICIPALES DE BILBAO, PREMIADA POR SU PROYECTO DE REGENERACIÓN URBANA EN OTXARKOAGA

- La Asociación Española de Gestores Públicos de Vivienda y Suelo, **AVS** reconoce con estos premios las prácticas en Nueva Edificación, Gestión de Vivienda Social, Gestión Medioambiental, Rehabilitación y Servicios Públicos.
- La ceremonia de entrega de premios tuvo lugar ayer, en un acto celebrado en Sevilla.
- El proyecto **Orain Otxar** es una experiencia piloto que se realiza como banco de pruebas para posteriormente implantar soluciones similares en otros barrios vulnerables de Euskadi.

(Bilbao, a 29 de octubre de 2021). La Asociación Española de Gestores Públicos de Vivienda y Suelo, **AVS**, premia a **Viviendas Municipales de Bilbao** por su actuación en la **rehabilitación y revitalización urbana en el barrio de Otxarkoaga**, a través del proyecto **Orain Otxar**.

La ceremonia de entrega de los Premios AVS 2020 a las Mejores prácticas en Nueva Edificación, Gestión de Vivienda Social, Gestión Medioambiental, Rehabilitación y Servicios Públicos, se celebró **ayer, 28 de octubre, en Sevilla**. El galardón de reconocimiento a la labor de Viviendas Municipales lo recogió su directora, **Eider Bilbao**.

El jurado ha resaltado la utilización **de dos tipos de indicadores en el proyecto Orain Otxar**, los relacionados con las actuaciones realizadas en viviendas, equipamientos y nuevos servicios, así como otros, más novedosos, relacionados con el género, la prevención de la pobreza energética, los nuevos negocios, las actividades sociales y la formación y promoción del empleo, con estrategias de capacitación y promoción a escala de barrio.

El proyecto es una **experiencia piloto que se realiza como banco de pruebas** para posteriormente implantar soluciones similares en otros barrios vulnerables de la Comunidad Autónoma.

La iniciativa **Orain Otxar**, que cuenta **con un presupuesto de 7 millones de euros a ejecutar en cuatro años**, tiene como **objetivo convertir a Otxarkoaga en un eco-barrio socialmente sostenible, con la implicación del tejido asociativo**. Se trata de la primera experiencia de esta naturaleza en la ciudad, fruto de la colaboración institucional y de la apuesta compartida por la regeneración urbana del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transporte del Gobierno Vasco y Viviendas Municipales de Bilbao.

Una de las actuaciones más relevantes del proyecto es la rehabilitación de cinco edificios bajo criterios de eficiencia energética y accesibilidad universal. En total, la intervención que se está proponiendo al resto de personas propietarias, afecta a 240

viviendas repartidas en 16 portales y tres calles del barrio (Irumineta, Txotena y Larrakoetxe).

Además, *Orain Otxar* incluye a su vez otro proyecto de alcance europeo. Se denomina **Opengela** y consiste en la **puesta en marcha de oficinas de barrio que acompañan al vecindario en todo el proceso de rehabilitación de sus edificios**. A modo de experiencia piloto, se ha creado la Otxar Opengela, donde sus responsables apoyan a las comunidades de propietarios en la contratación de las obras, en la gestión de ayudas públicas, en el acceso a financiación, en la mejora de la eficiencia energética o la accesibilidad.